Frai Bartolomeren euskera eta estiloa

Luis Baraiazarra

Orain dala hogeita hamar urte euskera batuaren amesak hartu zituan euskaltzale gehienen gogo-bihotzak. Euskera batu hau, euskalkiekin lehian eta askotan honeen errautsen gainean eregi zan, zoritxarrez...

Euskerak kalea iruntsi beharrean, kaleak euskera erdi iruntsi edota bere arrotz-airez kutsatu ete dauan nago...

Kezka eta ardura honeek irakin zoroan nire barrua hartzen ebela, idazle zahar, maite baten ondora hurreratu nintzan: Frai Bartolomerengana. Ez dakit zer dan zuzenago esatea, haren iturrira etorri nazela ala baso sarratuan sartu nazela... Izan be, biak dira irudi ederrak, indartsuak. Berbalduna, jario onekoa eta sermolaria zan aldetik, iturria dator hobeto. Iturriak sermolariaren etorria adierazten deusku. Ezin agortuzko isuri ugari berezkoa. Edota iturriak baizen ur garbia ekarri ez arren, zuhaitz sustraiak eta hatx ertzak leunduz goialdetik indartsu datorren erreka legez ikusten dot haren hitz-oldea...

Irudimenaren hegotan apur bat airatuz eta urteetan atzerantz egi-

nez, "horrek bai etorria!" esaten harrapatzen ditut Frai Bartolomeren entzuleak. Askotan esango eben, bai, hori haren entzuleak. Esan ez arren, ondorenak erakusten dabe argien zer zauskada eragiten eutsen haren berbeak. Ez dago irudimenaren hegotan airatu beharrik. Nahiko da agiri zahar edo artxiboetako paperak apur bat arakatzea. Horreetara begiratuaz, une bitan harrapatu dugu Frai Bartolome:

Behin, gizon talde handi bat, 50 edo 60, armak hartzeko eta altxamendurako prest egozala, berbaldi sutsu bat eginda, burutik kendu eutsen asmo hori, bake-bakean etxera joanaz... 1821.eko Gabonetan izan zan, ha Isla-ko Basamortuko (Sestao) priore zala. Horrek erakusten dauanez, euskeraz sermolari handia bazan, gaztelaniaz be ez eban izan behar bape motela...

Bigarren hau Ondarroan jazo zan: 1819ko otsailaren 7an kontzejua batuta egoan udal-aretoan eta korrituak ordaintzeko moduaz ziharduen eta aholku bila Frai Bartolomerengana jotea erabagi eben. Honan dator agirian:

> *"Y así estando juntos y congregados por mi fe, se hiço presente por su mrd el señr Alc^{e} sobre los veinte y quatro mil rrs que se recivieron el día diez y ocho de julio del año de mil ochocientos y siete de la testa - mentaria de Dn Franco Xavier de Armaolea sobre el modo de realizar el pago y si se deben pagar los intereses de quatro por ciento o no de la dha cantidad, y enterado el Aiuntamiento acordó consultar el punto con el R.P.Prior Fr. Bartolome de Santa Teresa del Combento de Carmelitas descalzos de la Villa de Marquina; y para el efecto pongan el Señor Vicario como Testamentario de dha testamentaria, esta Villa y algún otro vecino que quiera, los datos que tubieren por combenientes en su razón, y con lo que resolviese dho P.Prior se conforme esta Villa"*.

Hemen ageri danez, Frai Bartolomek, batez be sermolari eta idazle zan aldetik, geroago eta izen handiagoa eban Markina eta inguruetan; gizon zentzundun, aditu eta jasekotzat euken. Argi ikusten da

hemen Ondarroako herri-ordezkari hareek zein begirune handia eutsen karmeldar sermolari eta idazleari...

Dana dala, sermolari eta idazle honen ondora hurreratzean, iturri on eta korronte handiko erreka batera ez eze, oihan sarratu baten barruan sartzen nazen begitazinoa be badaukat. Oihana bizitzaren seinale da. Bizidun ugariren sorleku, bazkatoki. Askatasun berezkoaren erreinua; izadiko nahaste harmoniatsuaren altzoa... Frai Bartolomeren liburuetan euskera bizi, adierazpen indartsu eta molde oneko bizkaiera zaharraren eredua aurkitu dot. Euskera bizia dinogu, baina, ustez, J.A. Mogelen eskolaren ikutua ezagun dau. Halan be, idazteko forma, konbentzio eta joera askotan bat etorri arren, Frai Bartolomek bere nortasuna dau eta ez da erraz haren etorria, esaldi indartsu eta askotarikoak gure gramatikaren eskema estuetan sartzen. Horregaitik, oihan baten aberastasun joria jatort gogora.

Etorria aitatu dogu goratxoago. Ahozko jarioaz esaten da batez be. Sermolari on izatea da bat eta idazle on izatea beste bat. Frai Bartolomerengan jarduera biak bat egiten dabela, eta batean bestean baizen ona dala esango neuke. Ofizioz be sermolari eta idazle zan era batera. Halan be, haren idazkiei sermolari-grazia eta gatza darie. Euskeraz idaztean nahiko erraz dabilela dirudi. Berak be halan dino irakurleei zuzenduriko sarrerako atalean. Euskarari jagokanez, gehienak ondo ulertzeko eran idazten dauelakoan dago. Bere herriko euskera darabil, berak dakiena, barrutik dariona. Dana dala, erlijio-gaietako euskera, kutsatua eta nahiko mordoiloa dala dinosku. Elizgizonen itxikeriaz euskalgaiztoak jota ei dago arlo hau. Bestetan ez, baina arlo honetan, berba mordoiloen bitartez izan ezik ez ei dau herriak ulertzen dotrinea. Horregaitik ezinbestean sartu dituala dinosku, gogoz kontra, sartu be, hainbat berba arrotz. Lexikoa, beraz, ez darabil berak gurako leukean baizen garbia, erlijinoko gaietan, dotrinea bera ondo jasotea jarten daualako euskera onaren gainetik. Hona haren berbak:

> *"Verbeetia imini dot neure erricua; daquidana. Eusqueeraco guztietati apaindubeena, ederreena, ta eztitsubeena izan ez arren, izan leiteque, Euscaldunen baztar bateti bestera, eche guztietan dei eguin - da, iragota, cer nai daven, onduen zaarrai, ta gaztiai aituco deutsee - na, ta adierazoco deutseena. Alan uste dot. Ta jazo jat Naparruan, Quiputzetan, ta Vizcaijan, eldu nasan lecubeetan.*
>
> *Esan batzuc imini ditut gogo bagaric, gueure Eusqueraco verbeeta nausi, maite, zaar, gaztetu, gozo, prestu, ugarira gueure erruz, erveste - ti etorrijac. Eusqueria berez aberatsa da, baguenqui ondo. Gueuc Eleisa guizonoc verba ascotan naastau, ta ezaindu dogu Eusqueria. Gueuri entzunda, daquijeez baseerrijetacuac* Jaungoico Omnipotentia, Poderosua… Virgina Clementisimia… Misericordijosia… Mandamentubac… Absolvicinoia… Doloria…, Errestitucinoia… *Ta beste onaco verba euscalgaistoco asco. Erdeera ez daquijeen euscal - dunac, eureen echeetan, ta artu emoneetan biar daveen guztia, esaten davee eusqueera garbijan. Cristinautzaco icasijan dira euscaldun gais - tuac. Ez da au eusqueeriaren erruba, ezbada gueuria. Ta, ain dauque - ez ija artubac erdeera, edo latin verba batzuc ece, euraquin ezbada, aituten ez davee ondo dotrinia, edo cristinautzaco eracutsija. Onen bildurra arren, imini ditut erbeste verba batzuc Icasiquizuneetan. Bada Cristinautzaco eracutsijan zucen aituten emotia leenago da, ver - beetan eracustia baino"* (*Icas.I*, VIII).

Kristau-mezua euskeraz gauza barria dala be badinosku; horregaitik, ageri diran izenak be barriak dirala eta hareetariko asko kristautasunagaz batera urrunetik etorriak. Honeetariko izen hartuak euskera garbira aldatzea on dan ala ez jakitunak esan beharko dabela. Ez litzatekela zeregin gatxa:

> *"Eguiija da, Jesu Cristo, gueure Jaunagan sinistutia, ta ari darrai - con guztia, dan leguez chito barrija Eusqueriagazco; gueure cristinau - tzaco gauza barri ascoren icenac bere barrijac dira. Ta areetati ez gui - chi cristandadiagaz beragaz Urrin errijeetati etorrijac. Onetarico ija icen artubac:* bautismua… Conpirmacinoia… Penitencija… *guere*

> *Eusqueera garbira aldatutia, ondo litzaatequian, edo ez, Jaquitunac esango davee. Ez da ain biar gacha, eusqueera garbico iceneetan imin - tia"* (*Icas. I,.*X).

Bere eskuizkribuaren sarreran dinoana jakingarria da eta umore--tantaz bustia. Bere irakatsietan, sasoi haretako sermolari-airea hartuaz, betozkoz diharduala dirudi... Halakoetan ohi zanez, irakatsi garratzak, trumoi-burrundaran eihoak, infernuaren zemaipean oretuak dakarzkuz askotan. Orduko sermolarien ezaugarria zan, antza.

Sarrera honetako parrafo batzuetan, barriz, bere izaera umoretsua be agertzen deusku; barrurantz barre egiten dauan baserritar maltzurraren umorea.

Geroko liburuetan kontuan hartzeko, irakurleen eritxia jakin nahi leuke; zehatzago esanda, lehenengo honetan aurkitu dagiezan faltak adieraztea benetan eskertuko leukela. Eskuetan dan bitartean nahi dan erara moldatu leitekela: Gaiak laburregiak balira, luzatu; berbeta astuna balitz, arindu; arinegia balitz, pisu gehiago emon; giputz-aire bategaz hoba balitz, horretarako be prest dogu. Bizkaieraren indarra hobeto agertzearren, letra bikotxak jarri dituala dinosku. Ezer onik badau liburuak, Jainkoari eskerrak emoteko; eta bape onik ez baleu, inori be ez... Hona berbaz berba, Bartolomek dinoana:

> *"Liburubac poz gueijagogaz erosi, ta iracurri ditezan, euren asie - raan imi oi jacuez lora andi batzuc* Yracurliarenzat. *Onaco asierai beguiratuten bajacue, (Quevedo batenac ichi ezquero) liburu guztiac dira onac, edo oneenac. Alperric guero mundu guztiac diardar eguin - go dau liburu à gaiti: bapere gauza ez dala, edo iracurtia merecietan ez davela; asieraco berbetan chito guztizcua izango da. Esaten dotsut bada,* Yracurlia, *bene benetan, neuri au jazo daquidan ez dodala gura. Neuc arguitara etarataco liburuba chaarra dala esatia, echat niri toqueetan. Baña ona dala bere ez dot esango. Esango dot: Gueure eus - queraan oraindino onetaricoc urten ez davela. Esango dot: Palta asco daucazala. Esango dot: Obatu leijala. Esango dot: Quipuz-Erri asco -*

taraco bere ez dala. Ta dinot: Mandamentuben bigarren partia, Sacramentuben, ta Creduaren dotrinac, ta beste sermoe gauza batzuc arguitara etarateco, chito nai neuquiala, lelengo onen paltaac ezautu - tia. Ez neuc asco icusten ez deutsadazalaco; ezpada bestiac cein palta - zat euquico daveen, ez daquidalaco. Dotrinac laburrac badira, luza - tuco nituque. Berbeeta astuna badauca arinduco neusquijo. Arina badauca, pisu gueijago emon bere bai. Quipuz aire bategaz oba balitz, à bere emongo neusquijo, guztiz ondo ez arren. Enpin, edocein bere modutara girau lei, escubetan dauan artian, balequi batec guztien, edo gueijenen gustua, cein dan. Claru gaucia esatiarren, (bada ez da etara jaquitunai eracusteco; ezpada jaquitunac daquijena, ez daquijenai eusqueraz erreztuago eracutsi daijuen) ta Vizcaico berbeetiari daucan indarra emotiarren, letra batzuc doblauta imini dira, gainian erraija - gaz baño obeto eichita. Gauza onic badauca, Jangoicuari esquerrac emon; bapere ezpadauca, inori bere ez. Agur".

Hona arte, Frai Bartolomeren ondora etorriaz, gain-gaineko pentsamentu orokorrak, usteak, haren idazkiak sorrarazi deustazan iradokizunak, barruan biztu-itzungika diharduen ideia-izpiak, ordena ezarri ezinik nahaste handian erne jatezan gogoetatxoak. Hori da guztia. Ondorengo lerroetan, labur bada be, haren euskeraren ezaugarri batzuk adierazo nahi neukez. Ezinbestean hainbat xehetasun, albo--adarretakoak diranak, alde batera itziaz, baina enbor nagusikoak, Frai Bartolomek bere-bereak dituanak aintzakotzat hartuaz...

GRAFIA

Euskeraren ortografia bideratu barik egoan eta, Frai Bartolomek inguruko erderetiko grafia onartzen dau handi-handika; baina euskerazko fonema berezientzat bere aurreko nahiz bere garaiko euskal idazleenak hartzen ditu. Horretan, batez be, J.A. Mogelen eragina ageri dau.

Kontsonante batzuen erabileran, dirudianez, ez dau arau zehatzik eta grafema bat baino gehiago darabil fonema berarentzat. Esaterako: b/v; c/z; tc/tz...

Joera batzuk, halan be, oso garbiak dira. Esaterako, lexema ***u*** nahiz ***i*** bokalez amaitzen danean, beti erabiliko ditu ***b*** eta ***j*** hurrenez hurren, lexemaren eta morfemaren artean lotura egiteko: *argitsuba, arguija*. Adizkiekin aditz-izenak, erlatibozkoak eta eratorriak egiterakoan eta hitz barruan be grafema honeek ageri ohi dira Frai Bartolomerengan ***u*** nahiz ***i*** bokalen ostean: *cituban; escatuten deus - cubez / abijada baten; equijala; bijotzeco.*

Aditz laguntzaile iragankorrean *b/v*-ren alternantzia ageri da, baina ***v*** da gehien ageri dana: *davenac* (dauanak, hak); *daveenac* (dabenak, hareek).

Gaztelaniazko balio berberaz darabil ***gue, gui / ge, gi***: *gueijago; gueure; aguindubac; izan daguijala / gentiagaz; evangelijo; gentilen; gera bigunagaz; Eregiac; Erliginoe...*

Alternantzia ageri dau *c* eta *z*-ren artean eta baita *tc* eta *tz*-ren artean be. Jakina, hau *e* eta *i* bokalen aurreko kontsonante frikari eta afrikarietan jazoten da bakarrik.

Obra osoan behin agertzen da ***tx*** kontsonantea: *Gaixuac osasuna, gosiac jana, otzac berua, bilotxac jantcija;* gainerako guztietan beti darabil ***ch.***

H-rik nekez ikus daiteke, kasu bakan batzuetan izan ezik. Honako honeetan darabil: "humilde", "humildade"... hitzetan; interjekzioetan: *ah!, oh!* ; "herege" berban (hau "h" barik be badarabil): *Baita beste herege ascorenac bere. / Judegubac, Moruac, eta Eregiac, batzuc, pederic, eta bautismoric ezdauqueelaco*.

Beste horrenbeste eta gehiago esan geinke *f* letraren erabileraz. J.A. Mogelek luze dihardu *Peru Abarca*ren sarreran kontsonante hori euskerari arrotz jakola azaltzen; ezaguna da Pedro A. Añibarrogaz honetaz izan eban eztabaidea. Frai Bartolome Mogelen eta Markina aldeko joeraren bidetik doa. J.A.Mogelek *Peru Abarca*ren sarreran emoten ditu, esan dogunez, *f* kontsonantea *p*-z trukatzearen aldeko argudioak. Frai Bartolomek *Icas. II*, "Iracurliari" deituriko sailean dihardu honetaz, baina *p* dala euskerarena eta ez *f* dinoen jakitunen eritxia onartzen dau bete-betean, bere argudiorik emon barik. Holantxe dino: *"Eguiija da, erantzun eustan batec: P. iminten nevala f lecuban: Baina, jaquitunac dinuenez, ta euscaldun utsai entzuten jacuenez, ez dauca f cer eguinic gueure eusqueran"*.

Uriartek, Astarloak eta Juan Jose Mogelek ez dabe engararik, maileguzko berbetan behintzat, "f" erabilteko. Prai Bartolomek guztiz baztertzen dau kontsonante hori, eta "f"dun maileguzko berbak ugari erabili arren "p"z trukatzen ditu beti: *opendidu, oitura impamiac, pro - peta paltsuen, San Prancisco Sales, opicijoz, popuertza, apicinoia, paltia, paltau, piestia, pabore, pandanguan, compeseetan, prutia, copradijeeta - co, pornicacinoia, pamelija... empin.*

Dana dala, kasu bakan batzuetan badarabil *f*, esaterako "Faraon" berban: *Faraonen escu gogorretati Isrrael librau zanian. / Egitoco Faraon Erreguiagaz baino.*

Baina berba hau sarri agertzen da *p*-z idatzirik be: *Mo[i]sec ez eu - tsan inos esan Paraoni. / Iru eguneco vidian juan biar evala bere gente guztiagaz, Jaungoicuari mendijan esquinija eguitera, esaten eutsan Paraoni.*

Izen berezietan, ez beti: *Ferraris. / R. P. Fr. Francisco Antonio de Palacios. / Milango Obispo Jauna, Francisco Geneto.*

Baina *p*-z sarri dakar "Prancisco": *San Prancisco Salesec Philoteari. / San Prancisco Salesec ez eutsala Philoteari guztiz eragotzi dantzan eguitia.*

K grafema ez dau erabiltzen. Honen ordez *ca, que, qui, co, cu* darabiltza. Bere obra osoan behin dakar bakarrik eta bera beti holantxe ezagutzen dogun hitz arrotzean: *Onen ondoric esaten dau Kyrieeleison, ta Christeeleison...*

X (ixa), hizki nahiz hitz zehatz eta jakinetan darabil; ez forma adierazgarriak, txikikariak etab. sortzeko. *X* kontsonantearen aurrean, batzuetan, *i* bokala tartekatzen dau eta beste batzuetan ez. Hau ez da, ziur asko, grafia kontu hutsa; bizkaieraz ohikoak diran hotsei grafiaz ahalik eta zehatzen erantzun nahia nabari dala esango neuke: (...) *goxian. / goxeric arrats. / goxic gueijena. / goxaago contuban jausten dira. / goxago edo berandubago.*

Baina: *goix parteti. / jaquiturija goixtarra gaiti. / goixeti. / gachera - co goixtartu.* Dana dala, *i* bakoak askoz be ugariago dira.
"Gaixo" eta eratorriak, ostera, holan erabiltzen ditu ia beti. Inoiz edo behin "gaxo"...

Ñ-ren ordez *in* idaztea eta *il* eta *ill* nahiz *ll*-ren arteko alternantzia, barriz, grafia kontua dala dirudi, haren euskeran holakoetan sabaikari egiteko joera nabaria da-eta. Behin edo behin agertzen da *ñ*. Askoz be ugariago *in*. *Baina* darabil ia beti; *baiña* behin; *bañ*a hamasei bider. *Baino* darabil gehienetan; *baiño* hiru bider; *bañ*o hogeita bi bider.

"L"ren kasuan, ez dau joera zehatzik. Dana dala, *"ilgarri"* behin bakarrik agertzen den bitartean, *"illgarri"* sarri-sarri dator. Gauza bera esan geinke *"ilun"* hitzari buruz be: bi bider agertzen da "l" bakarraz: *buruco iluntasuna. / limbo ilunian*; "l" bikotxaz, barriz, sarri. "Mutil"

hitza, bokala ondorik dauala, hogeita hiru bider dator *il*-z eta bost bider bakarrik *ill*-z... "Ibili" hitza holantxe dator ia beti. Bi bider dator bakarrik *ill* grafiaz. Beraz, *-il* da grafia normala hitz honetan. "Neskatila" hitza behin bakarrik dator *nescatila*; eta hamahiru bider *nescatilla*. Hau da grafia normala berba honetan. "Mila" hiru bider dator; "milla" hirurogeita zazpi bider. Beraz, hau da grafia normala.

FONETIKA

Bokalei jagokenez, J.A. Mogel eta Frai Bartolomeren idazlanei gain-gainetik begiratzea nahiko da bokalen bikoizteak ugari dituela ohartzeko. Ekialdeko bizkaiera darabilen idazle zaharrak bat datoz horretan. Jakina danez, grafian, fonetikan, morfologian, lexikoan... alkar janzten dabe J.A. Mogelek eta Frai Bartolomek.

Grafiaz jardun dogunean, "u"ren ondorik bokala datorrenean, loturazko "b" erabilten dauala esan dogu; eta era berean, "i"ren ondorik bokala datorrenean, "j" edo yod loturazkoa sartu ohi dauala. Honek guztionek bokalen harmonia deritxon gaira garoaz:

Hiatuan, hau da, diptongoa osotu barik alkarren ondoan gertatzen diran bokalen artean aldaketak eragiten ditue idazle batzuek, kidekoak ez diran bokal-bikoteen ordez kidekoagoak ezarriaz. Hau, lexemari artikulua gehitzerakoan gertatzen da batez be, baina baita bokalez amaituriko lexemari bokalez hasten dan morfema gehitzerakoan be. Hitz barruan urriagoa da, baina hitz barruan be halan gertatu ohi da, esaterako, erroan "-oa-" nahiz "-go-" daben adizkietan "-ua-" eginez: *nua / eruateco / ezbajuaco / juango balira / eguan / dagua -nian / juateco...*

Ikusi daiguzan bokal ezbardinez amaituriko lexemari "-a" artikulua gehitzerakoan gure idazleak zelan lortzen dauan bokalen harmonia hori:

-A + a = -ia (sing.) nesquia	-I + ak = -ijac (pl.) chorijac
-A + ak = -aac (pl.) nescaac	
	-O + a = -ua (sing.) gurasua
-E + a = -ia (sing.) echia	-O + ak = -uac (pl.) gurasuac
-E + ak = -iac (pl.) echiac	
	-U + a = -uba (sing.) buruba
-I + a = -ija (sing.) chorija	-U + ak = -ubac (pl.) burubac

Ondorio honeek atera leitekez eskema honetatik: "a" itsatsia daben berbei artikulua gehitzerakoan, singularrean, bizkaierazko joeraren arabera, *-ea* egin beharko eukean: *alab<u>a</u> alab<u>ea</u>*, baina inguru honetako idazle zaharrak ez dabe onartzen bokal bikote hau eta *-ia* egingo dabe, pluralean bokal biei -lexemarenari eta artikuluarenari- eutsiaz. Jakina, inesiboan ere gauza bera dogu: *plaz<u>aa</u>n* (sing.); pluralean, berriz, -A + e = -ee: plazaetan = *placeetan*.

"-Oa" bikotea ez dau onartzen gure idazleak, *-<u>ua</u>* eginaz. "Oe" be aldatu egin ohi dau, *-<u>ue</u>* eginaz, latinezko *"-one(m) / -tione(m)"* atzizkidun berben maileguetan izan ezik. Honeetan, bokal arteko "n" galduaz nahiz tokiz aldatuaz, *-<u>oe</u>* egiten dau: *serm<u>oe</u>, ocasin<u>oe</u>, cor<u>oe</u>, erra - z<u>oe</u>*. "Ocasino" bi bider itzuri jako holan: *edo pecatuco ocasi<u>no</u> urrecua dala* (*Euscal-Errijetaco*... 10). */ pecatu mortaleco ocasi<u>no</u> urrecuac izatia* (*Euscal-Errijetaco*... 120); "itzuri" dinogu, obra osoan zehar bi bider bakarrik datorrelako eta "ocasinoe" berrogeita zazpi bider...

Artikulua gehitzean, lexema "e"z amaitzen dan gainerakoetan legez, *-<u>ia</u>* egingo dau, J.A. Mogel eta inguru honetako idazle zahar guztien antzera: "bide" *bidia*, "etxe" *echia* egiten dabenez, "ocasinoe" *ocasino<u>ia</u>*, "erliginoe" *erliginoia*, "diversinoe" *diversino<u>ia</u>*, "devocinoe"

devocinoia... Beraz, "-oe", salbuespen honeetan izan ezik, -*ue* egiten dau: *Ta au esaten jacue cristinaubai. / dinue dantza zaliac. / Ta gura - suac galarazo ezin leguijue umiari estaduco libertadia. / Ezin umiai emon zinaijue aziera peligruzcuagoric codicijarena baino*...

"-Ea" be, esan dogunez, ez dau onartzen, eta -*ia* egiten dau beti. Berez "-ia" denean, yod bat sartzen dau: -*ija*; baita hitz barruan be; "i"ren ondoko bokala beste edozein izanik be, yod hori tartekatzen dau: *vijamoneco. / tercijuan. / juicjjozcoc.*

"Guztia" sarri darabil, eta holantxe idazten dau, zazpitan izan ezik; "guztija" idazten dauan zazpi horreek *Icasiquizunac I*. liburukian datoz 13, 40, 86, 166, 188, 191 eta 200. orrialdeetan, hurrenez hurren; gainerakoan, ehundaka bider "guztia". Beste berba bitan be ez dau beti beteten yod erabilteko joera hori: *neurria* (behin), *neurri - ja* (lau bider): *Provincia* (bi bider, bietan Gipuzkoa esan nahi dau): *Baina Vizcaico, ta Provinciaco piesteetan au, ta utsa bat dira. / Vizcaijan, ta Provinciaan. Provincija* (bi bider, batean Gipuzkoa esan nahi dau eta bestean herrialde bat): *Nic incentau bagaric, daqui gen - tiac ondo, onetarico Ermita asco dagozana Vizcaijan, ta Provincijan. / ¿Gueratuco ete da erri baten, provincija baten, edo Erreinu baten lotsa - rizco pecatubaren pestia?*

Berez "-ua" danean, behin eta berriro esana dogu, loturazko "b" edo wau deritxona sartzen dauala. Honetan, nik dakidala, ez dau salbuespenik. Beraz, lexemaren amaiera "u" daben berbak eta "o" dabenak ondo bereizten ditu. Esaterako, harentzat argi dago "desonestu" dala hitza eta ez "desonesto", *desonestubac* idazten dau-eta. "Lutu" dala, eta ez "luto", *lutubac* idazten daualako...

Bokalen bikoiztea, goiko eskeman ikusi dugunez, "a" itsatsiak eragiten dau, gehienetan, idazle honeek lexemaren amaierako "-a"ri eta deklinazio-atzizkikoari, biei eusten deutse-eta: *aa* singularreko inesi-

boan: *plazaan*, baita pluraleko absolutiboan eta ergatiboan be: *nesca - ac*...

"A" itsatsia dabenetan eta lexema "-e"z amaitua dabenetan, *ee* egingo deusku pluraleko genitiboan eta pluraleko tokizko kasuetan: *nesqueen / echeen / placeetan / placeetaco / echeetaruz / eguitadeetan / dantzeen / dantzeetan / verbeetan / eleiseetan / legueetan* (hau euskara estandarrean legez) etab. "A" itsatsia dabenetan honako hau gertatzen da: -a + e = ee: plaza + etan = *placeetan*. Gauza bera, partizipioa "-au" daben aditz-izenetan be; ia guztiak dira maileguzko berbak, partizipioan "-au" amaiera dabenak, garai zaharragoetan, adituak dinoenez, bizkaierazko joerarari jarraituz, "-adu" izan eta bokal arteko "d" galduz "-au" izatera etorri diranak. Hona adibide batzuk: *olgau > olgue - eta; / desondrau > desondreetan; / condenau > condeneetan; / contau > conteetan; / predicau > prediqueetan; gustau > gusteetan; > gorde > gor - deetan; mudau > mudeetan; combidau > combideetan; / quesau > que - seetan; pen(t)sau > penseetan (penseeta moduba); usau > useetan*...

Dana dala, arau hau ez dau beti beteten; batzuetan gitxiegiz eta besteetan gehiegiz; ia beti gehiegiz. "Gitxiegiz" dinogunean, beraren arau edo joeragazko esan nahi dogu gitxiegi. Esaterako, gitxiegiz: *dantzetan; / dantzetara*, baina bi "e"z askoz ugariago. *Olgueta* askotan agertzen da holan, baina bi "e"z gehiago. "Eleisa", ostera, bokalbikotxik barik askoz be sarriago ageri da: *eleiseetan / eleiseetara*; baina *eleisetan*... sarriago; *eleisan / eleisaan* bietara... Pluraleko absolutiboan eta ergatiboan behin ere ez da agertzen *eleisaac*. "Gorde"ren aditz-izenak bietara datoz, eta bietara ugari: *gordetaco / gordeetaco; gordetia / gordeetia; gordetan / gordeetan*...

Gehiegizko bikoizteak dira, halan be, nabarmenenak: *cereguineen, laneetan, gueijeenac, santubeen, cristinaubeen, zorrotzeenac, indartsube - enac*.

Haren arautik at dagozan bikoizteak adizkietan aurkitzen ditugu, beharbada, bestelakoetan baino gehiago. Analogiak daroala dirudi horretan huts egitera. Esaterako: *(...) eguiten davela pecatu* (hak), baina *(...) eguiten daveela pecatu* (hareek): *"ala pecatu mortala, ala veniala eguin daven"* (*Euscal-Errijetaco*... 98) (hak); baina *"plazaan piestia eguiten daveenac"* (*Euscal-Errijetaco*... 53) (hareek). Kasu honeetan, "u"ren eraginez ondorengo bokala ixten danez gero, bikoiztea bereizgarri da; baina beste batzuetan, honen analogiaz edo, behar ez danean be egiten dau... Iraganean ez dau ondoko bokala ixten; beraz, honako bikoizte hau ez legoke zuzen: *"ez da esaten Apostolubac saldu eveela, ezbada Apostolu batec saldu evala"* (*Euscal-Errijetaco*... 167).

"I" bikoitza honako berba honeetan dator batez be: *eguiija, miina, priisia, jadiichi, Ostiija, aleguiinaz, eguiiten / eguiijezu, iia.* Lehenengo biak sarri agertzen dira. "Eguiija" bietara dator eta sarri. "Miin" ("mihi") idazten du beti alde batetik, "min", "mingoch", "minbera" etab., bestetik.

"Eguiija" hainbeste aldiz agertzen da; ebakera sabaikaria markatzeko baliabide bat izan daiteke, ia beti holako guneetan dator--eta... Kasu batzuetan argi dago bokalen asimilazioa jazo dala: *prii - sia* (< priesia??), *jadiichi / jadiisteco* (< jadeichi / jadeisteco??); eskuizkribuko *barriin barri* (< barrien barri < barriren barri??)...

"U" bikoitza be agertzen da noizbehinka. "Suur" eta "zuur" normalak dira, baina "luur" ezin konta ahala bider dator Bartolomeren liburuetan; "lur" hamar bat aldiz dator. Hemen, beharbada, egitura labur eta moteleko berbak indartzearren jarriko dau bokal bikotxa...

Beste berba batzuk be halan emoten deuskuz... *Luur, chaar, laa - rregui, belaarri*...

Beste kasu batzuetan, "eda*ari*" , "lotsa*ari*", "ja*aten*" eta eda*aten*" hitzetan, esaterako, erroaren marka eta atzizkiarena hobeto bereiztearren izan leiteke. Gauza bera "litza*ateque*" adizkian be.

Gai honek, oso nabaria da-eta, beti erakarri izan dau hizkuntza gaietan adituak diranen gogoa. Lehenago esan dogu Ekialdeko bizkaiera zaharra darabilenak eskola antzeko bat sortu ebela, J.A. Mogel buru zala, ziur asko. Baina holako joera finkatuak ez dira gehiagoko barik sortzen. Inguru honetako ahoskeran oinarritzen zirana ziurtzat jo geinke. Frai Bartolome bera be ez egoan hain sendo bokalen bikoiztearen arazo honetan. Gehienetan bokal bikotxak egitera joten dau, ustez herrietako euskaldunik gehienen joera jarraituaz eta, bide batez, hiztunengan egozan arau batzuk beteaz, esaterako, "a" itsatsiarena... baina horretaz beren-beregi gogoetarik egin barik. Dana dala, zalantzak zituan eta, zalantza horreek eraginda, bietara jokatzen dau:

> *"Iracurlaac icusico davee Icasiquizun oneetan, verba batzuc dago zala bitutaco letriagaz:* aa, ee, ij, arimaan, deutseen, jadiichi… *Beste batzubetan verbac eurac, ta euretaricuac letra bacarragaz: poltsan, dave, eguija… Euscal erri guztietaco zetara oba dan jaquin ezac, bijetara imini eraguin ditu. Esan legui: verbiaren luce laburra, ascotasuna, ta jagocan aitutia eracusteco, obeto daguala letra bitubagaz. Menturaz ascoc erichico deutsa astun. Baina verbeeta guztien gacha da au. Urreenguan entzungo da jaquitunen erichija".*

Gaztelaniak hain bereak dituen "ie" eta "ue" diptongoak guztiz arrotz jakoz euskerari. Halan be, maileguzko hitzetan, ahozko bizkaieran batez be, nahiko sartuak dagoz holako hainbat hitz. Gure idazleak be badarabiltza; "ie" dabenetatik bitxiena, beharbada, bizkaieraduna ez danari "piestia" forma egingo jako, beste euskalkietakoak *festa / besta* erabilten dabe-eta; gainera, haren lehenengo liburuan ia berban-berban agertzen dana da.

"Ue" diptongoa dabenen artean bada beste forma bat nahiko bitxia eta Bartolomek ondo hartua daukana: "popuertza" / "popuertzacua"... Forma hau *f / p* kontsonanteen trukaketa dala eta be sarri aitatzen dana da. "Errespuesta" forma be hainbat bider dator, baina *Euscal-Errijetako*... eta eskuizkribuan bakarrik; *Icasiquizunac* liburuetan behin be ez. Bestalde, "consuelo" hitza ageri da, gaztelaniaren erara eta euskerara egokitu barik: *Gorde bedi legue Santuba, serbidu bedi Jesus, amau bedi Jesus, ta gauza guztiac biurtuco dira gueure one - raco, gueure* consueloraco, *ta alegrija eguijazcoraco*... (*Euscal-Errijetaco*... 42-43. orr.)

Bokalen aldaketaz, gehitzeaz etab. baditu kontuan izateko beste xehetasun batzuk:

Ainchina / ainchinaco: Hauxe da gehienetan darabilen forma, baina "i" bakoa be agertzen da; *chicar* eta *chiqui* darabiltza, baina ez *chiquer; erichi/erechi* bikotean bere forma normala *erichi* dau, baina *erechi* be badarabil noizbehinka; *achequija* darabil gehienetan,"a" itsatsiaz; forma hori 24 bider agertzen da inprimaturiko liburuetan eta eskuizkribuan hauxe da forma bakarra; *achaquija* bederatzi bider dator; *esquini* dakar eta ez *ei / ai* diptongoduna; *jaurtegui*: Bokalen disimilazioa jazo da hemen: *i* > *e*, eta horrez gainera, bokal arteko kontsonante ahostuna. Bizkaieraz normala da gune horreetan kontsonante ahostuna izatea; halantxe dogu beste partizipio nahiz aditzoin batzuetan be, esaterako: *ebagi, jagi, idigi, eregi*. Holakoetan, jakina, laburdurak gertatzen dira, bokal arteko kontsonante ahostunak galkorrak dira-eta; *etzin* da darabilen forma bakarra. Holan gainerako euskalki eta bizkaieraz ohikoak diran formetatik aldendu egiten da pixka bat. Gainerako euskalkietan *etzan* da forma nagusia, bizkaieraz egiten dan ekialdean *etzun* eta mendebaldean *etxun / itxun*. Dana dala, aditz trinkoan (sing.) *datza, datzanac*, (pl.) *datzazanac*... formak darabiltza beti.

Hitz-amaieran eta atzizki batzuetan "a" egiten dau "e"ren ordez; esaterako, *-le / -tzaile* atzizkiak *-la / -tzaila* bihurtzen ditu. Azken hau ez beti. Joera hau bere-berea dau. Hona atzizki honekin datozen batzuk: *eracusla / entzula / salzaila / erosla / onguilla / gaisqui esala / eguilla / jaola / eraguilla / iracurla / galzailla / estalzailla ...*

Kontsonanteei jagokenez, ondo bereizten ditu txistukariak. Dana dala, *nas, nos, eleisa/elexa, inos, baisen, gaisquin, gaisto* (eta eratorriak), *gox / goix / gois* ("gox" da gehien darabilena; "goix" gitxiago eta "gois" bi bider edo; "gos" eskuizkribuan behin...) formak erabilten ditu. Bizkaieraz berba bakan honeek bilakaera berezia izan dabe. Berba horreek, bizkaieraz */x/*tik */s/*rako bidea egin dabe.

Kontsonante afrikarietan be beste horrenbeste dogu: beste euskalkietan "-itz" dana bizkaieraz "-tx" da; esaterako: *(h)aritz / aretx; (h)aitz / atx; gaitz / gatx; bakoitz / bakotx* (hau ez bizkaieraz bakarrik, baita Iparraldeko euskalkietan be).

Egia esan, badau beste berba bat be beti "s"z idazten dauena: "barristau"; ez dakigu zergaitik, baina jasota izten dogu halan dala.

Bizkaieraz ohikoak diran bokal arteko kontsonante ahostunak ditugu Frai Bartolomerengan maileguzko hitz batzuetan; latinezko *-atum/-itum/-tatem* amaieratik datozenak dira batez be: *servi<u>d</u>u, escri - bi<u>d</u>u, atrevi<u>d</u>u, consenti<u>d</u>u, liberta<u>d</u>ia, desonesti<u>d</u>a<u>d</u>ia, virgini<u>d</u>a<u>d</u>ia...* Mailegu zaharragoetan sinkopa gertatzen da: *sosegau; sobrau; adabau; ezcutau; barristau; nahastau; desterrau; manchau; mortipicau; castau; quexau...*

Bada horreen artean euskaldunok mailegutzat hartzen ez dogunik be; esaterako, "naastau", "ezcutau", "barristau". Analogiak bere eragina izan ohi dau; gogoratu daigun gaur egun Gipuzkoako Urola aldean erabilten dan "eskau". Beste batzuetan, ostera, holako forma

batzuk, euskeran guztiz hartuak dagozanak gainera, orain gaztelaniaz zaharkiturik dagozan berba batzuen maileguak izan ohi dira; esaterako, "asmau", "olgau".

Frai Bartolomerengan kontsonanteen disimilazio eta aldaketa batzuk be baditugu; esaterako: *vereno* (baina *veneno* be badarabil); *gobait egin* idazten dau beti, ez "gogait egin"; *aloverecuac*: *G/B*-ren arteko trukaketa. Berez "g" dagokio. Halan be, gure idazleak ez dau behin be erabilten "g"duna, "b"duna baino.

L/N-ren arteko alternantzia: *Onan, onaco...* Forma honeek dira normalenak Frai Bartolomerengan, baina "olan" be hainbat bider darabil; "olaco", ostera, behin edo bakarrik. *Ultze*: bere eskualdean erabilten dan forma bera darabil, hau da, "l"duna eta ez "n"duna, gainerako euskalkietako *iltze* formatik hurrago dagoana.

P/M // B/M-ren arteko alternantzia: *Imini*: hau dau bere forma normala; hain zuzen be, Bizkaiko mendebaldean erabilten dan forma ia bakarra. Bost bat bider *ipini/ipintia* be agertzen dira... *Vende / ven - detu*: Partizipio legez forma honetan darabil bakarrik; "mendian" behin edo behin ageri da ("mende", "menderatu" esangurarekin).

R/D-ren arteko alternantzia ageri daben hainbat forma datoz haren obran. *Iruri, iduri* eta *irudi* hirurak darabiltza. *Laudeun/sei - deun...*: bietara darabiltza; *bederatzi/beredatzi* formen arteko alternantzia. *Bigar,* behin eta barriro adierazo dogu "i" bokalaren ondorik, loturazko yod (grafiaz *j*) erabilten dauala, baina hau salbuespena da; behin dator bakarrik "bijar"; gainerako guztietan "bigar". *Bidao*: hemen, hauxe da darabilen forma; "r"dunik ez da agertzen behin be. *Irun/idun*: forma biak darabiltza beste euskalkietako *lepo* adierazteko. *Erromedija*: bi bider dator "erromerija", baina forma normala lehenengoa dau. *Eran/edan*: inprimaturiko lanetan ez da alternantziarik. Bere liburuetan beti idazten dau "edan", "edana" etab. Baina, eskuiz-

kribua herriko ahoskeratik hurrago dago, eta hemen bai, hemen forma normala "eran" da. "Usadijo" darabil beti, eta ez "usarijo". *Adin on / arin on*: Biak darabiltza; baina ez dabe adiera bera. *Aredijo*: normalean "arerijo" eta "etsai" darabiltza. Behin dakarrik "aredijo". Ez dakigu hutsa edo nahi gabe itzuri jakona dan. *Aguidaca / aguira - ca*: bien arteko alternantzia dago.

R/G-ren arteko aldaketa: perpaus ilatiboetan, *beraz* forma da nagusitu dana. Halan be, gure idazleak behin be ez dakar bere obra osoan. *Begaz* da haren forma bakarra.

L/R-ren arteko aldaketa: *Estari*: bere ohiko forma "estaldu" dau, sarri darabilena; baina behin dakar "estari". Honen aztarna "lohi--estari" berban somatzen da Markina aldeko euskeran. "Lohi-estaria" zikina edo lohia gitxi igarten jakon erropaz esaten da batez be.

Kontsonanteen lekualdatzea: *Alemanija*: holantxe idazten dau, ziur asko herri-ahoskerari jarraituaz. *Solbarda*: berba hau behin dator eta holantxe idatzirik. *Irago*: gure idazleak hutsik barik darabil forma hau, eta ez "igaro". Bi adiera ditu Frai Bartolomerengan: batetik *pasa - tu* eta besterik *nekeak jasan, sufritu, eroan*. Forma zaharra ha dala dirudi, ekialdeko "iragan" formaren kidekoa eta aditz-arazlearen aztarna ageri dauana.

Ohikoak ez diran kontsonante multzoak agertzen jakuz batzuetan Bartolomeren testuetan, batez be adizki batzuetan. Hitzen erroa ondo gorde nahiak daroala dirudi horretara: *deutscu / dacuszu / eutscun / jantzten / eutsquijon ...*

Markina aldeko euskeran, berba batzuetan, *z tz* bihurtzeko joera nabari da; *z*-ren ahoskera markatuak itziriko arrastoa izan leiteke...? Dana dala, "erretza" (erraza), "barritz" (berriz, ordea, ostera...) holantxe esaten dira. Horregatik, Frai Bartolomeren *vitzi, irabatzi,*

eitza, atzi, lutzaro eta abar ez dogu uste gogoak emon eutsalako asmatuak diranik. Forma horreek eta "t" bakoak agertzen dira. Eskuizkribuan eta *Icas. III*-an "t" bakoak agertzen dira batez be.

Bokal arteko kontsonante ahostunei eusteko ahalegina nabari da. Gainerako euskalkietako *ere*, *bere* idatziko dau beti, eta ez gaur egun eskualde honetan forma bakarra eta bizkaieraren eremuan nagusi dan *be*. Eskuizkribuan *leez*, liburuetan *legez; ezin lei / ezin legui; ez zein / ez zedin; della / dedilla; ein / eguin; euzquija / eguzquija; eraotzi / eragotzi* ... Baina inprimaturiko lanetan be bokal arteko hainbat kontsonante galtzen dira, esaterako, *bagoz, baqui, zaatia, ezautu, nausi, illaineco*...

Bizkaieraren ezaugarrietariko bat da galdetzaile, izenordain zehaztugabe, erakusleetako gune batzuetan kontsonante dardarkariak galtzea: *nok*, eta ez *nork*; *edonok*, eta ez *edonork*; *inok*, ez *inork*; *zek*, eta ez *zerk*; *zetan*, eta ez *zertan*; *ezeta(ra)ko*, eta ez *ezerta(ra)ko*; *atan*, eta ez *artan* eta abar. Bartolomek be bizkaierazko forma horreek darabiltza ia beti, baina *ezertaco* darabil, kontsonante dardarkariduna...

MORFOLOGIA

1. Deklinabidea

– *Nori* edo datiboa: (mug.) *-(r)i* / (sing.) *-ari* / (pl.) *-ai*
– *Nondik* edo ablatiboa (bizigabea): (sing.) *-ti* / (pl.) *-etati*
– " " (biziduna): (sing.) *-a ganic* / (pl.) *eganic*
– *Norantz* edo hurbiltze-adlatiboa: (sing.) *-rutz/ruz*
– *Noraino* edo muga-adlatiboa: (sing.) *-raguino* / (pl.) *-etaraguino*
– *Norekin* edo soziatiboa: (mug.) *-(e)gaz* / (sing.) *-agaz* / (pl.) *-aquin*

– *Zertaz, zerez* edo instrumentala: (mug.) *-(e)z* / (sing.) *-az/-agaz* / (pl.) *-aquin*
– *Zergatik* edo motibatiboa: (mug.) *-gaiti* / (sing.) *-a gaiti* / (pl.) *-ac gaiti*

Gainerako kasuak ez dabe ezer aipatzekorik. Mugagabeaz ohartxo bat. Benetako maisua dogu horretan, ondorengo adibideotan ikusi leitekenez:

> *Ez davee beste asieraric euqui ez Erreguiac, ez Erreguinac, ez Guerraguinac, ez Caballeruac, ezda beste Adanen Semec, edo alabec bere* (*Icas. III,* 60).

> *¿Ta au onan izan ezquero, esango dau, Evangelijua sinuistuten davenec, edo Eleisa Ama Santiaren semec, alaco dantza galdubeetara bere guraz juatia, ez dala pecatu?* (*Euscal-Errijetaco...* 102).

> *Esan daigun gueijago: Ez daucala compesorec Eleisaco dotriniaren erreguela, edo neurgarriric, ez Eracusleen esanic, alaco dantceetara duazanac, leen juana garbatu, ta ostera ez juateco asmua artu artian, pecatubeetati ascatu, edo absolvidu leguizala, esaten deutsanic* (*Euscal--Errijetaco...* 103)

> *Ezin compesorec pecatubeetati librau legui, alan pecatu dan ocasi - noe jaquinera, bere guraz doiana, ocasinoiari isteco verbia emon artian* (*Euscal-Errijetaco...* 103)

> *ta gurasuac bere ezleusquijue seina besuetara emongo, edocein lelen - go aguiri dani* (*Icas. III,* 78)

> *Edocein gentil, judegu, nai heregeri, emon ceuntsan escubidia, sei - nac batiatuteco* (*Icas. III,* 45)

> *Onezaz ostian, edocein ur berezco da asco, ta da ona, seina batia - tuteco* (*Icas. III,* 39)

> *¿Iracurri dau inoc cristandadeco liburutan, alaco ocasinoe jaqui - nera premina bagaric bere naiz juatia, ezdala pecatu mortala?* (*Euscal--Errijetaco...* 102)

Goiko eskeman ageri danez, ezaguna da, soziatibo eta instrumental kasuetan, singularraren eta pluralaren artean egin ohi dauan bereizketa. Hau eskualde honetako eta Gipuzkoako bizkaiera darabilenen ohiko bereizketa da ahozko euskeran. Honetan ez dator ekialdeko bizkaiera darabilenekin bat. J.A.Mogelek, J.J.Mogelek eta Uriartek plurala "-acaz" egiten dabe. Frai Bartolome bakarrenetariko da, (sing.) *-agaz* (pl.) *-aquin* bereizketari eusten:

> *Escubaquin, veguijaquin, ta arpeguico geriagaz guztia luxurijaren suba darijona* (*Euscal-Errijetaco...* 64-65).

2. Erakusleak

– Absolutiboa (sing.) *au / ori / a* (pl.) *oneec / orreec / areec*
– Ergatiboa (sing.) *onec / orrec / ac/(arec)* (pl.) *oneec / orreec / areec*
– Datiboa (sing.) *oni / ari* (pl.) *onei / orrei / arei*
– Genitiboa (sing.) *onen / orren / aren* (pl.) *oneen / orreen / areen*
– Soziat./instrum. (sing.) *onegaz / agaz* (pl.) *oneequin / orreequin / areequin*
– Intrumentala esapide batzuetan: *onezaz gainera, onezaz ostian, onezaz gaineracua, azaz gainera...* (Hauetariko besterik ez dau erabilten eta honeen aldaerarik be ez).

– *Zelan* / *zelako* aditzondo eta izenlagunaren erantzunak, erakusleekin, *onan (olan) / onaco; alan / alaco* dira Frai Bartolomerengan...

3. Izenordain pertsonalak

– *Ni / neu; zu / ceu; à / bera; gu / gueu; zubec / ceubec (zeubec); areec / eurec*

– *Nic / neuc; zuc / ceuc (zeuc); ac / berac; guc / gueuc; zubec / ceu - bec (zeubec); areec / eurec*
– *Nire/ene / neure; zure / zeure; aren / bere; gure / gueure; zuben/zubeen / zeuben/zeubeen; areen / eureen/euren*
– *Niri / neuri; zuri / ceuri (zeuri); ari / berari; guri / gueuri; zubei / ceubei (zeubei); arei / eurei*
– *Nigaz / neugaz; zugaz / ceugaz (zeugaz); agaz / beragaz; gugaz / gueugaz; areequin / eurequin/eureequin*
– *Niretzat / neuretzat; zuretzat / zeuretzat; arentzat / beraren - tzat; guretzat / gueuretzat; areentzat / eurentzat (eureentzat)*
– *Nigan; zugan / zeugan; agan / beragan; gugan / gueugan; eure - gan*
– *Nigana; zugana / ceugana/zeugana; gueugana*
– *Niganic; ceu ganic; à ganic / beraganic; gueu ganic*

(Ez dogu beste formarik aurkitu)

4. Atzizkiak

Atzizkietan oso ugaria dogu Frai Bartolome. Hona hemen darabiltzan atzizkietariko batzuk:

-ari: *Emacume dantza<u>arija</u>ganic apartau zaite, bere artiagaz, ta encantubagaz galdu ez zaguizan. Ne forte pereas in efficacia illius.*

-kari: *Burrucarijac, maquila<u>caari</u>jac, ta ocasinoetsubac pecatu eiten davee.*

-dun: *Oituco baguina gueu, Eleisa-guizonoc, Larramendi, Cardaveraz, Mendiburu, Moguel, ta beste Euscal<u>dun</u> garbijac iracurte - ra.*

-gin/-kin: *Ez dauca votoguinac, edo promesguinac escubideric, eguin daven promesa, edo votua luzatuteco, ez, beste gauza batera aldatuteco. / gaisquin*

-le/-la: *Monteru esaten jacuen baso-jaole batzuc; / neure entzula onac*

-gile: *"-gilla" darabil: onguillac; / Rada Alargunaren Liburuguillaan*

-tzaile/-tzaila: *Jesus, gueure Salvatzaille maitia; / pagatzaille chaa - rra; / zorpagazaile atzerac; / Jaungoicua da Emonzaile eguiijazcua*

-zain: *Gueure Arzaina; / seinzaina*

-bide: *escubidia; / auzi bide; / Asco da, cristinau batec zucen bide pusca bat artutia*

-gintza: *ugazaben pecatu-guintzac, ta pecatu-eraguintzac; / Jaungoico paltsuac serbidutiac, gach guintzac, asarriac, gorrotuac, odi - juac, ordiquerijac, jaate andijac, ta onetaricuac*

-(k)eria: *ordiquerijac*; / *zequenquerijac*; / *zoraquerija*; / *araguija - ren labanquerijac*; / *gaistoquerija; / prestubezquerija; / oquerrerija; panparrerijac; alperrerija; / dotorerija*

-kune/-une: *veguiracune; / argui une; / illun une; / ez dauca uts uneric*

-pen: *munduco gachac luzaro irauteco asipen bat*

-mendi: *urcamendi; / galdumendi; / ondamendi; / itsumendi*

-(t)asun: *zabaltasun; / leijaltasun*; / *zuzentasun; / guizatasun; / ugaritasun; / prestutasun; / ontasun; / ondasun*

-tza: *testigantza; / ezcontza; / erijotza; /* (mugatuan) *prailetzia; / abadetzia; / diaconutzia; / subadiaconutzia; / obispotzia; / artzobispo - tzia*

-eta: *olgueeta*; *penseeta moduba*; *verbeeta*; (mugatuan) *ezpatetiaren, edo gorubetiaren*

-eria: *urrerija; / perlerija; / gazte eria*

-kada: *erremuscada; / osticada; / botacada; / arricada*

-kotx: *bacocha*

-tsu: *arduratsu*; / *ugaritsu; / odoltsu; / iruntsu; / aixetsu; / baque - tsu; / pisutsu; barritsu*

-turia: *jaquiturija*

-era: *aziera; / asiera; / ezaubera; / arpeguiera; / presteera; /* (mugatuan) *vici eria*

-kizun: *icasiquizun; / sinisquizun; / eguiquizun; / etorquizun; / pensaquizun; / contu emoquizun; / escaquizun; / artuquizun; / eracus - quizun; / esanquizun; / juanquizun*

-gei: *gorputz guei; / guizon guei; / pecatu guei; / monja guei*

-garri: *negargarri; / lotsagarri; / illgarri; / lotugarri; pozgarri; / neurgarri; / galdugarri*

-gi: *estalgui*

-ti: *guzurti; / bildurti*

-zale: *odol zale*; / *piesta zale*; / *dantza zale*

-tegi: *abade tegui; / sutegui; / convidau tegui; / praile teguija; / bidao teguija*

-aldi: *assarre aldi*; / *guiza aldi*; / *verba aldi*; / *egunaldi*; / *jardun aldi*

-kor + *-tza*: *gaixocortzia, illcortzia, ta beste onaco asco*

-ero: *egunero/egun oro/egunoro; / ordu ero; / verbaoro*

-ro: *luzaro; / deungaro; arguiro; / astiro; / zintzoro; / barriro; / vizi -ro; / garbiro*

-kin: *ondoquinac*

-sko: *andiscote; / idisco*

-tila: *nescatilla*

-txa: *nescacha*

-eta: *lapurreta*

-to: *chito; / obeto; / errazto*

Atzizki honeetariko batzuk oso emonkorrak dira Frai Bartolomerengan; esaterako, *-garri; -kizun; keria/-eria; -tasun; -gin; -gile; -tzaile; -la; -ro; -era; -tsu; -tza* (...)

Beste batzuk gitxi erabilten ditu. Esaterako, gaur egun hainbeste agertzen diran *-keta* eta *-pen*. Honeen ordez, askotan, aditz-izena nahiz partizipioa erabilten dau izen gisa: *eracuste oneco liburubetan*. Baina: *¿Ta nun dauquee gurari gaisto oneec euren asipena, edo sustraija?*

"Jazoera" forma ez dau erabilten. Horren ordez "jazo" darabil izen gisa: *Jesus Altaracuaren jazo gozuac; / Jazo triste, ta negargarri oneec eracusten deuscubez aimbeste Eregec*.

"Zaartzaro" forma be ez dakar; "zaartzan" bai: *bagoz, inoren upaco ardaua edaaten daveenac, ascoren carinuari vijotzian lecu emoten deu - tseenac, ta zaartzan, besteric ezinda, ezcontza guintziari emoten deutse - enac.*

-tegui atzizkiak, ia beti multzoa adierazten dau eta ez tokia: *Ez da bada sinistuten, Abade teguija, ta Praile teguija juaten diriala piestetara, edo eguiten daveela dantzan, gentiac esan gura leusquegun moduban.*

Atzizkiak, ia beti, tradizioaren arabera erabilten ditu. Esaterako, *-garri*-k eragile-adiera dau tradizioan, eta halan darabil. *-Kizun*-ek etorkizunean burutzekoa dan egintza adierazten dau; batzuetan baita eginbeharra be: *eguiquizuna* = egitekoa; *artuquizuna* = hartzekoa; *juanquizuna* = joan beharra; *compesaquizuntzat* = konfesatu beharre-kotzat... Baina batzuetan atzizkiei emon ahal dabena baino gehiago eskatzen deutsela esango neuke. Holan, berba batzuek osaera bitxia dabe eta ez hain erraz onartzekoa. Holakoak dira, esaterako, *gaixo - cortzia, illcortzia*, gaztelaniazko "enfermedad" eta "mortandad" adie-razteko, ziur asko. Oraingo euskaldunontzat ia ezin iruntsiak diranak be baditu bat edo beste: *adilla* = adimena (adi/aditu + la) / *nailla* = borondatea, nahimena (nai + la): *aciendiaren gainian erabaguija emo - tera doian guizonac, adilla edo entendimentu arguija ta zurra, voron - date edo nailla arteza ta ondrauba*. Aldaerak be baditue forma hone-ek: "adilari" eta "nailaari": *Gueure arimia, ta arimaco adilarija, edo entendimentuba, ta nailaarija, edo borondatia, ta gorputza bere senti - du guztiaquin Jaungoicuac gueuri duaric emonac dira*.

Beste batzuetan ondo asmatu dauala esango neuke; esaterako, "buruguin" hitza. Bere burua ederto gobernatzen dauana, gaztela-niazko "vividor" esan nahi dau eta bete-betekoa dirudi...

IV. BESTE BEREZITASUN BATZUK

Frai Bartolomeren euskeraren morfosintasi arloa, hain lan mugatuan azaltzea ezina da-eta, haren gauzarik berezienak-edo aipatuko ditut labur-labur:

- Aditzei gagokezala, bizkaieratik at, eta idatziz bizkaieraz be bai, gitxi erabilten diran adizki batzuk ageri jakuz:

• *negui:* baina ezin ucatu negui
• *legui:* baina Cerubac prestau davela, esan legui
• *guinai:* ezin ucatu guinai, chito balijo andicua, ta premina andicua dala au cristinaubarentzat.
• *zinai:* zuc ezin mudau zinai Evangelijoco leguia. // euqui zinaizan calte guztiac.
• *zinaijue:* Ezin umiai emon zinaijue aziera peligruzcuagoric codicijarena baino.
• *leguijee:* otseguinari zanetaco odola bere chupauco leusquijuenac, albaleguijee!

Ahal erako aditz laguntzaile iragankorra da beti, paradigma ugaritan darabilena. Gaur egun bizkaieraz gehiago erabilten diran ***neike / leike / geinke / zeinke / zeinkie (zeinkee) / leikie (leikee)*** formen balio berekoak ditugu.

Darabilen beste adizki bat be azpimarratzekoa da: ***neuque / leuque / guenduque / cenduque / leuquee***; honeek ohikoak dira bizkaieraz, baina objektua plurala danean, gaur egun erabilten ditugun *neukez / leukez / geunkez / zeunkez / zeunkeez/zeunkiez / leukeez/leukiez* formen ordez, beste honeek darabiltza: ***nituque / lituque / guenduquez / cenduquez / lituqueez***.

Gaur egun bizkaieraz zabalen dabiltzan ***naiten / daiten / naitela / daitela...*** formen ordez, gainerako euskalkietan ezagunagoak diran ***nadin / dedin*** *(dein)* / ***nadilla / dedilla*** *(deilla)* ... erabilten ditu.

Nork-Nori-Zer saileko aditz laguntzailea orainaldian, beti da ***deu-*** eta ez ***dau-***; hau ez da Frai Bartolomerena bakarrik. J.A. Mogel, Añibarro, Astarloa eta bizkaierazko idazle zahar onenak halan egiten dabe beti. Bizkaiko ekialdekoak izan nahiz mendebaldekoak, horretan bat datoz. Holan egiten ditu adizki honeek: (niri) ***deust / deusta - zu / deustee //*** (hari) ***deutsat / deutsa / deutsagu / deutsazu / deutsee //*** (guri) ***deuscu / deuscuzu / deuscubee //*** (zuri) ***deutsut / deutsu / deutsugu / deutsubee //*** (harei) ***deutseet / deutsee / deutseegu/deutsegu / deutseezu/deutsezu / deutsee*** ... Objektu plurala danean, "z" gehitzen jake aurreko formei.

Honeek, goian esan dogunez, *Nork-Nori-Zer* aditz laguntzailearen adizkiak dira. Frai Bartolomek ***dau-*** formako adizkiak be badarabiltza, baina honeek aditz trinkoak dira beti. Bereizketa, beraz, garbi--garbia da: aditz laguntzailea: ***deu-*** eta aditz trinkoa: ***dau-***. Aditz trinkoa testuinguru nahiko finkatu eta antzekoetan darabil, bata besteari loturik egon, batak bestearekin zerikusia izan... esanahia izaten dabe ia beti. Honetan be guztiz bat dator J.A.Mogelekin. Hiru edo lau adibide jarriko ditugu; honeetariko bitan aditz laguntzailea eta trinkoa biak agertzen dira:

> *Ascotan dantza arinian, oin bijac laban eguinda, plaziaren erdi - jan jausita gueratuten dira andrazcuac, inoc beguiratu biar ez deutse - en moduban, escuti dautsanac, colpez jaso artian; ta gente guztia arixe beguira chaloca* (*Euscal-Errietaco*...69).

> *Baña pecatuban vitzi, peccatu eguin ardura bagaric, pecatuti urte - teco ezer eguin ez, ta Cerura juango nas, pensau, alcarri ez dautsa, utseguitia da, engainuba da, Jaungoicua tenteetia da* (*Icas. I,* 38).

> *gauza jaquina da, juramentu gaistuac, blaspemijaac, maldeci - noiac, ta bidauac alcarri dautseena* (*Icas. I,* 149).

> *otseguinac cer zor deutseen euren ugazabai: ta ugazabac cer zor deutseen euren otseguinai. Alcarri dautseez bitzubeen eguin biarrac* (*Icas. I,* 221).

Azpimarratzekoa da, eta aditzagaz zerikusia dauana, gure idazleak ez dauala "dana", "danak" erabilten "guztia" eta "guztiak" adierazteko; azken honeek erabilten ditu bakarrik, eta testuinguru batzuetan "dirianak".

Beste xehetasun bat be bere-berea dau Bartolomek: *dozu* adizkiaren subjektua "zu" nahiz "zuek" izan leitekela. Holakoak ugari agertzen dira, batez ere *Icasiquizunac* liburukietan: *Sinistu biar dozu, neure entzula onac, dotrina labur baten ezin erabagui leguizala, sail zabal andi oni darraicozan gauza guztiac* (*Icas. III,* 148).

Perpaus osagarrietan, testuinguru batzuetan, *-la / -na* alternantzia agertzen da batez be bizkaieraz idazten daben batzuengan. Alternantzia hori oso markatua da Frai Bartolomerengan. Hainbat aditu ahalegindu da joera horren legea aurkitzen edo gure literaturaren ilunune txiki hau argitzen, nik dakidala behintzat, guztiz lortu barik. Menpeko aditza, *-la / -na,* gobernatzen dauan aditz nagusian dagoala, uste dot, gakoa; *-na* amaiera daben Frai Bartolomeren perpaus osagarri gehienak batu ditut eta *-la* daben asko be bai. Kasu bakan batzuetan huts egin arren, % 90 ingurutan honako bereizketa hau somatu dot:

Aditz nagusia:

esaten dau ..... *-la*
jaquin biar da ..... *-la*

dinot ..... *-la*
esaten da ..... *-la*
icusiko dau ..... *-la*
dino ..... *-la*
esan daigun ..... *-la*
eguija da ..... *-la*
uste dabe ..... *-la*
entzun dot ..... *-la*
ikusico da ..... *-la*
gogoratuten bajacu ..... *-la*
(...) eracusten deuscuna da ..... *-la*

ecin ucatu legui ..... *-na*
gauza jaquina da ..... *-na*
zeuc dacuszu ..... *-na*
ondo daquijeela ..... *-na*
ez da errez sinistuten ..... *-na*
eguija da ..... *-na*
pedeco eguija da ..... *-na*
Jaungoico onac beequijan ..... *-na*
ezautu evan ..... *-na*
Jaungoicoaren beraren esana da ..... *-na*
esanda gueratu da ..... *-na*
gauza aguirija da ..... *-na*
ezin dudaan imini guinai ..... *-na*
sinistu evan ..... *-na*
ez dira acordauco ..... *-na*
edoceinec dacus ..... *-na*
pedeco erabaguija da ..... *-na*
autortu biar dira ..... *-na*
ceinegaz eracutsi evan ..... *-na*
Eleisiaren sinistutia da ..... *-na*

contuban jausten bazara ..... -na
ixilic euqui ..... -na
zucen dacusgu ..... -na

"Eguija da" bi sailetan agertu jaku:

> *Baita da eguiija, plazaco piestara, ta dantzara duazanac, (guztiz itsubac, eta gorrac, edo umiac ezbadira) ondo daquijeela bigarren juate aldico: juaten dirian guztian, edo piestaruz, edo piestaan, edo piestia amaituta, edo obeto esateco, leleengoti azquenera luxurija guz - tiaren testigu izatera duazana* (*Euscal-Errijetaco...* 99-100).

> *Eguiija da, nos bait olgueetia naturaleciac escatutén davena. Baita, cetan, edo atan olgau leitequiana bere* (*Euscal-Errijetaco...* 189).

Argi dago *-na* forma markatua dana eta *-la* arrunta; ha zerbait ziurtzat, ageritzat, jakintzat jotzen danean darabil; hau, barriz, beste barik zerbait baieztatzen danean. Goiko bigarren "eguiija da" hori "gauza jaquina da" esaldiaren harikoa da. Badakit honek azalpen sakonagoa beharko eukena, baina holako lan baten haren euskeraren ezaugarri nagusienak agertzea zan helburua eta ez besterik.

ESTILOA

L. Mitxelenak *Historia de la Literatura Vasca* liburuan berba gitxitan jasoten dau haren estiloa. Holantxe dino:

> *"Frai Bartolomé fue un magnífico orador, tonante y fulgurante a ratos, expositor transparente siempre. Son suyas algunas de las mejores páginas de prosa vizcaína; su léxico, no muy purista, es de una extra - ordinaria riqueza y variedad."*

Lantxo honen hasieran jarri dogun esaldia be harira dator: *"Halakoetan ohi zanez, irakatsi garratzak, trumoi-burrundaran eihoak, infernuaren zemaipean oretuak dakarzkuz askotan. Orduko sermolarien ezaugarria zan, antza"*. Joera hori bere-berea eban; Bizkaiko Elizaren gurasoetariko bat genduan, erlijinoko maisu... Herria maite-maite eban, baita herriko hizkuntza be. Euskal gizartea oso erlijioso ikusten eban. Kristau-fedeak sustrai sendoak zituan; baina ohitura batzuetan jentilen edo paganoen aztarnak somatzen zituan. Horregaitik, ohitura ezainak galdu nahirik, Erromako Kristau-ikasbidea eta moral katolikoa aldarrikatzeari ekin eutsan buru eta bihotz. Sermolari bikaina zan aldetik dohain ezin hobeak zituan horretarako. Hor dogu, ba, Frai Bartolome berak uste eban egitekoa beteteko apostolu-garrez eta hizkuntzaren baliabidez ondo hornidua... Ikusi daiguzan atal batzuk hur-hurretik:

> *¿Baina celan etorri dira cristinau errijeetara dantza madaricatu orreec? ¿Celan? Etorri cirian bada Gentileetati cristinaubeetara. Ta guero gurasuetati umeetara. Gauza jaquina da, gentilac edocein izate artuten eveena Jaungoicotzat. Ta emoten eutseezan Jaungoico paltsuai eureen icenac. Jaungoico paltso areec ondreetaco, eguiten zitubeen eure - en egunetan piestaac, dantzaac, ta beste olgueeta itchusi lotsarizcuac, Jaungoicuaren Ciudadeco Liburuban San Agustinec dinuan leguez. Oneec dira, araco ardaozco, odolezco, ta luxurija utsezco gentilen olgueeta loijac, ta guizatasunaren desondragarrijac, zeintzubetan gui - zonac, piestia eguiteco, pelietan cirian Artzaquin, Otsoaquin, ta Tigreequin, alcar ill artian* (*Euscal-Errijetaco...* 140-141).

> *Alan olgueetiaren izenagaz ta estalguijagaz eguiten dira Cristandade guztia desondreetan daueen gachac, ta ainchinaco genti - lac bere lotsaz baino eguiten ez citubeen pecatubac. Oneen contra ixil - du bagaric diadar eguiten davee Eleisiaren guiza aldi guztietaco Gurasuac, eta Eracuslaac. Baita Espiritu Santubac bere lecu ascotan, aitu gura dauenarentzat* (*Euscal-Errijetaco...* 8).

Baina alaco gurasuac, eurac bere piestaric piestara ibili zirianac, edo oraindino dabiltzanac. Desonestidadeco escolaan atzijac, ondo eldu bagacuac, zaartuta bere berdiac. Ta gurasuac celacuac, umiac alacuac. Aita verdiaren semia verdia. Ama loijaren alavia loija (*Euscal-Errijetaco...* 59).

¿Baina cer verba? Arimiari ondo gura deutsanac, alboti bere en - tzun biar ez ditubanac. ¿Ta ce maitequerija? Escubaquin, veguija - quin, ta arpeguico geriagaz guztia luxurijaren suba darijona. Icusten da: dantzia asi dedinian, nescaac armatuta dagozala, avijan goseric daguan chorija amaren janarijaren zain leguez, nos noc dantzara eruango ete dituban, goguan dauqueen leunquerija, ondo eracusten daveela. Erri batzubetan nescaac asten davee ta cumpliduten davee mutilez, edo guizonez dantzia (*Euscal-Errijetaco...* 64-65).

¿Ceimbat zoraquerija negargarri icusi ez ditugu gueuc egun onee - tan Prancija tristian, ta alvo erreinubetan? Oraindino Pranzes odo - lezco errecac, ta pozubac casic lurruna darijuela dagoz orreetan. ¿Ce gaiti negargarri oneec? ¡Ah! Gauza jaquina da. ¡Ta ujala jaquin ez baguendu! Orraco voltaire, Espinosa... ta beste Prancijaco jaquitun cantauboc barristau ditubee ainchinaco Epicuro, Zenon, Pirro... ta beste guizon loi, desonestu guztien arima bagaco, ta espiritu bagaco aragui utsezco legue madaricatubac, ta escola atsituba Prancijaren erdijan lotsa bagaric. Ta atzo cristinau zan erreinuba imini dau gaur - co, esateco moduban, luxurijac ta libertadiaren amodijuac Eleisa baga - ric, altara bagaric, Sacerdote bagaric, Jaungoico bagaric, luurtuta, araguituta, odoltuta, icusi leguijanic tristeena, errucarrijena, lotsa - rizcuena, ta negargarrijena (*Icas.II*, 52).

Sovervijac mundu guztia imini gura euquian andituta, aixaatu - ta, arrotuta. Codicijac nai euquian bestiai odolac eta munac, uza - nac leguez, chupauta balijo guztia bere poltsaan euquitia. Luxurijac guztiac icusi gura cituquian lotituta, atsituta, aragui artian lizundu - ten. Envidijac gura evan dirianac orituta, sicatuta, igartuta egotia. Gulerijac, eztaarriraguino beteta, aseta guztiac egotia. Su gorrotuac

guztiac icutsi gura cituquian ixiota, alcar erreetan. Ta naguitasunac, guztiac etzinda luurrera beguira egotia. Sovervijac ezin icutsi zitu - ban asiac: Ezda, luurrera veguira etzinda egozanac bere, ta ain guichi, guztia chupau gura eveenac. Alan Sovervijac imini eutsen guerria Gulerijari, Codicijari, ta Naguitasunari.

Gulerijac ta Naguitasunac ez even alcar galdu gura. Baina ezin icutsi even inor orituta, igartuta ta ixiota egotia. Ta ain guichi, diru - ba gordetia gaiti, gosia iragotia ta gorputza arro ta sabela zimur euqui - tia. Alan Gulerijac ta Naguitasunac iracoi eveen guerria Sobervijaren, Codicijaren, Embidijaren, ta Su gorrotuaren contra. Baina Gulerija aseta eguan leguez, ta Naguitasuna alperra dan leguez, bertati cansau cirian, ta ichi eustsen guerriari (*Icas. II,* 18).

Au da embusterija. Au da miin verenotsuba. Au da adisquide galtze madaricatuba. Ezer bere ez juacola, baztarretaco guzur ta saltsa guz - tiac batuta, areec bacochari bere erara, ta guztiai min emongo deutse - en modura, contetia, da, adisquidetasun, ta baque on guztiac galdutia. (...)

Ara emen, cristinaubac, embusterubaren, adisquide galzailliaren ta baque on galzailliaren verbetia. Guztia verenoz betia. Batzubetan esango deutsuz onaco verba minverac ceure senarraren con - tra. Beste batzubetan emaztiaren contra. Beste ascotan, edo otseguina - ren contra, edo ugazabaren contra, edo senidiaren contra, edo auzo ondrau baten contra.(...) Ascotan izango dira alaco embusterubaren verbac asmaubac. Ez guichitan erdi entzunac. Ta beti gueitubac, ta echura guztia galdubac, adisquidia gueijago penetaco (*Icas. II,* 211).

Nai ona izan, ta nai arin ona izan, nai gogocua izan, ta nai gorro - tocua izan, nai asarre izan, ta nai aleguere izan, nai nasaija izan, ta nai cintzua izan, nai alperra izan, nai buruguina izan, dan modu - cua dala; ¿Bat eguin cinian ceure lagunagaz? Bada agaz vici biarco dozu, batori, edo bestiori ill artian (*Icas. III,* 372).

Auzo eraan egon ezquero, gaisoric daguan arerijua ez visitetia; agaz verba ez eguitia gaiti, bidia austia, ezcuteetia, arpegui ez emo - tia; verbaric alcarri eguin gura ezda egotia; ta beste onaco cristinau arteco artu emonac, leenago alcarregaz eguiten citubeenac, bata bestia - ri ucatutia, da gorrotuaren, icutsi ezinaren, ta opa chaarraren senai - lia, dino San Bernardino Senacuac (*Icas. I,* 100-101).

Jaungoicuac umiai emondaco escubide onen contra da, gurasuac, nai beste edoceinec, euren aparteco irabacija gaiti, empeinuba edo temia gaiti, eurac derichuenagaz edo euren ederrecuagaz inor ezcon - tcera ecartia, aren gogocua ez dana ezautu arren. (...) Ecarten ditubee ezcontcera, batzubetan gurasuac euren ume tristiac; beste batzubetan Ugazabac euren errenteruben umiac; beste batzubetan otseguinac, batez bere andi echeetacuac; ecarten ditubee ezcontcera, dinot, euren gogoco ez dirian lagunaquin. Icusi bere gura ez lituquen lagunaquin. Gogo betia, ta empaduba emoten deutsen lagunaquin. Dotia ez gal - dutia gaiti, Ugazabagazcua ez galdutia gaiti, Andiquijagazcua ez galdutia gaiti ezconduten da inos maite izango davela sinistu ezin daven lagunagaz (*Icas. III,* 355).

Jaungoicua serviduten ez dogun artian, gueure vizitzaac izango dira penazcuac, atsecabazcuac, estubac, gusto bagacuac, sosigu bagacuac suguia leguez, luurreco gauceetan tatarrasca, ta arrastaca beti daviltzanac (*Icas. I,* 5).

Ez da asco, Jesusec berac virgina bere Esposac zaintuteco, ta osoric gordetaco, legue guztiac urratutia, ta mundubari, ta impernubari burla eguitia. Catiac eten dira, caltzaidubac bigundu dira, subac oztu dira, otsuac mansotu dira, Aguintarijac goitu dira, borregubac cansau dira, orijo, ta verun urtu gorijac iruntz prescotu dira, ta laba ixiuac bainu epeldutu dira, virginen gorputz garbi osuac ausi ezinda, zatitu ezin - da, penau ezinda, galdu ezinda. Ez da asco Jesus maitiac virgina arga - lai, bigunai, azal meecuai, eurenez bildurtijai, ta ascotan umiai, ta gaztiai indarra, ta espirituba emotia, mundu guztia, ta penagarri guz - tiac goituteco, ta iragoteco, tristetu bagaric (*Icas. II,* 93).

> *Badaucazu emazte barritsuba, citala, temosia, alperra, burugui - na, ardura baguia, errazoe minverac arpeguijan esaten deutsuza - na, bere adisquidiai zuri baino arpegui arguijagua eracusten deutsee - na....* (*Icas. III*, 363).

Adibide honeek nahikoa dira Frai Bartolomeren estiloa pixka bat dastatzeko. Uholde baten antzera da haren ekarria: Izenlagunak, adizlagunak, aditzak, izenak... borborka darioz. Baina ez da ugarian nahasten eta galtzen dan testua. Bere etorri handi hori ondo bideratzen daki, osagai bakotxa bere testuinguruan egoki sartzen eta esaldiei toles bizi-bizia emoten. Horretan maisu dogu Frai Bartolome. Haren lanak irakurriaz, kapitulu bakotxa tesi antzera goitik behera arrazoitsu eta ondo eratuak dagozala konturatzen gara. Idazle honetaz berba egikeran, indarra aitatzen da beti. Izan be, hori bere-berea dau. Txukuntasunean edo, nahi bada, dotoretasunean bai, baina horretan ez deutsa inok hurrik emoten. Eta Besterik ez!